

ESKABIDEA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

1. ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA

- Interesduna: laguntza edo dirulaguntza jaso nahi duen pertsona -kasu honetan, zaintzailea kontratatzen duena-
- Ordezkarria: baldin eta interesdunaren ordezkaria beste pertsona bat bada. Kasu horretan, ordezkari-tzita-dokumentu bat bete eta sinatu behar da. Esteka honetan eredu bat proposatzen dizugu:

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/-/eskabidea/borondatezko-legezko-ordezkaritza-egilestea-inprimaki-normaldua/>

2. ESKATZAILEAREN DATUAK (zaintzailea kontratatu duenarena): Kontratutako zaintzailearen gainean Gizarte Segurantzari egiten zaion kotizazio-dokumentuan familiaren etxeko titular gisa ageri den pertsona da.

Adingabearen zaintza eta babesa esleituta daukan ama edo aita, hartzzailea edo tutorea izan daiteke, edo zaintza eta babesa esleituta daukanarekin bizi dena; hau da, haren ezkontidea edo izatezko bikotekidea.

- NAN/AIZ/PASAPORTEA: Eskatzaileak nazionalitate espainiarra duenean, bere NANaren zenbakia idatziko da. Eskatzaileak nazionalitate espainiarra ez duenean, AIZ (atzeritarren identifikazio-zenbakia) edo pasaportea adierazi beharko da.
- AIT: Nazionalitate espainiarra ez badauka eta, gainera, AIT agiria badauka (atzeritarren identifikazio-txartela), adierazi zenbakia.
- Jakinarazpenetarako helbidea: Atal honetan adierazten den helbidea jakinarazpen postalak bidaltzeko erabiliko da. Garrantzitsua da telefono mugikorraren datuak betetzea.

3. EZKONTIDEAREN EDO BIKOTEKIDEAREN DATUAK: ezkontza-harreman edo antzeko harreman bidez eskatzailearekin lotura duen familia-unitateko kidea da, kontratatutako zaintzaileak zaindu behar duen adingabearen aita edo ama izan edo ez.

4. DIRUZ LAGUNDU DAITEKEEN JARDUERARI BURUZKO DATUAK: Diruz laguntzeko eskatu den kotizazio-aldiak.

5. KONTRATUTAKO PERTSONAREN EDO BATA BESTEAREN ONDOREN KONTRATUTAKO PERTSONEN DATUAK: diruz lagun daitekeen aldi langile bat baino gehiago kontratatu badira, haietako bakoitzaren datu guztiak bete beharko dira.

6. FAMILIA-UNITATEARI BURUZKO DATUAK: adierazi familia-unitatea edo familia-unitateko kideren bat egoera hauetakoren batean dagoen: familia ugaria, genero-indarkeriaren biktima, desgaitasun- edo mendekotasun-egoera.

7. FAMILIA-UNITATEAN BIZI DIREN SEME-ALABEI BURUZKO DATUAK: familia-unitatean bizi diren seme-alaba guztien berri eman behar da. % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna edo mendekotasuna badu haietakoren batek eta erakunde eskumendunak onartuta badu desgaitasun edo mendekotasun hori, atal honetan alegatu beharko da eta agiri bidez egiaztatatu.

8. JAKINARAZPENETARAKO DATUAK: eskatzaileak oharrak eta jakinarazpenak jasotzeko hautatu duen modua.

Identifikazio-ziurtagiri elektronikorik ez baduzu, posta-komunikazioa aukeratzeko gomendatzen dizugu, bestela ezingo baitituzu eskuratu Euskadi.eus web instituzionalako NIRE KARPETA atalean zure esku jartzen diren jakinarazpenak:

<https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>

9. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FORU-OGASUNEI DATU EKONOMIKOAK ESKATZEKO BAIMENA

IAZ ERRENTA-AITORPENA AURKEZTU ZENUEN?

Kontuan hartuko diren errenta-datuak duela bi urteko diru-sarrerei buruzkoak dira, hau da, iaz aurkeztutako errenta-aitorpenekoak.

BANAKAKO ETA BATERAKO AITORPENA (EGOERA ZIBILA ALDATUZ GERO).

Kasu hau gerta daiteke egoera zibila aldatzen den ekitaldi fiskalean. Ezkondu bazara, adibidez, ezkontzaren data arte banakako aitorpena aurkeztu ahal izan duzu, eta, ondoren, baterako aitorpena, zure ezkontidearekin batera.

10. HIRUGARRENEAN ALTA FITXA: Nahitaezko agiria da administrazio publikoak laguntza ordaindu ahal izateko. Hirugarrenean alta-fitxan, eskatzaileak laguntza zein banku-kontutan kobratu nahi duen adierazten da.

Identifikazio-ziurtagiri elektronikoa baduzu, alta eman dezakezu honako lotura honetan:

https://www.euskadi.eus/web01-s2oga/eu/contenidos/informacion/regtelter_infor/eu_rtt/index.shtml

Paperezko agiria honako lotura honetan ikus daiteke:

https://www.euskadi.eus/contenidos/autorizacion/alta_terceros/es_7999/adjuntos/ALTA.pdf

ESKABIDEAK AURKEZTEKO TOKIA

Eskabide hau Eusko Jaurlaritzako Herritarrentzako Zerbitzuaren bulegoetan (ZUZENEAN) aurkeztu daiteke.

<p>ZUZENEAN zerbitzuaren bulegoak: 01005 Vitoria-Gasteiz, Ramiro Maeztu kalea, 10 48011 Bilbo, Kale Nagusia 85 20004 Donostia, Andia kalea 13</p>
<p>ZUZENEAN, Herritarrentzako Zerbitzuaren informazio-telefonoa: 012</p>

<p>Eskabidea elektronikoki ere aurkez daiteke: www.euskadi.eus/familia</p>

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikulua zehaztutako organoen aurrean ere aurkez daiteke:

- Zuzentzen zaion administrazio edo organismoaren erregistro elektronikoa, eta 2.1 artikuluan aipatzen diren subjektuetako edozein erregistro elektronikoa
- Posta-bulegoetan, araudiz ezarritako eran.
- Espainiak atzerrian dituen ordezkariak diplomatikoetan edo bulego kontsularretan.
- Erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetan.

ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEAREN HASIERA. Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorreko Etxeko Langileen Sistema Berezian alta eman eta zaintzailea kontratatzen denetik 59 egun igarotzen direnean.

Kontratu hori egin eta gehienez ere urtebete izango da eskabidea aurkezteko.

Eskabidea epez kanpo aurkezten bada (hau da, baliatu zenetik 365 egun baino gehiago igaro badira), ez da adierazitako epekanpoko egunei dagokien laguntzarik emango.

Salbuespen garrantzitsua: 2021eko uztailetik 2021eko abendura bitarteko Gizarte Segurantzarako kotizazioak 2022ko abenduaren 31ra arte aurkeztu ahal izango dira.

ADIBIDEA

KONTRATUA EGIN ETA ALTA EMAN DEN EGUNA	ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA	
2023-08-01	2023ko irailaren 29tik	2024ko abuztuaren 1era
2024-04-01	2024ko maiatzaren 30etik	2025eko apirilaren 1era

- Dirulaguntza epea amaitu eta egun bat geroago eskatzen bada (lehenengo adibidean, 2020ko abuztuaren 2an), egun bati dagokion laguntza soilik galduko litzateke. Abuztuaren 3an eskatuko balitz, bi egun galduko lirateke, eta horrela, hurrenez hurren.

OSO GARRANTZITSUA

Hurrengo laguntza-eskabideak (JARRAIPEN-ESKABIDEAK) azken dirulaguntza-eskabidea aurkeztu zenetik GUTXIENEZ LAU HILABETE igarotakoan aurkez daitezke.